Ehungintzako ikasketarik ez zegoenez herrian, 1905ean udalak Grabatuen Eskola sortu zuen. Gerra Zibilaren ostean, oinarrizko eskola jarri zen martxan. Erreportaje honetako bi ahizpa protagonisten aita ere bertan aritu zen ikasten. Gogoan dituzte bere istorioak. “Hamalau urterekin hasi zen Algodoneran lanean eta oinarrizko eskola martxan jarri zutenean, lehen promozioa izan zen”, diote harrotasunez.

Herrian hain indartsua zen fabrika bat izateak, onura ekonomikoez gain, bizitzeko erraztasun batzuk eskaini zituen. Bergara eta Algodoneraren kasuan, lantegiak argindarra sortu eta herriari ematen zion. Maria Paz eta Maria Rosa Alustizak beraien aitak Gerra Zibilean argindar hori ziurtatzeko egin behar izan zuena azaldu dute: “Mantentze-lanetan egiten zuen lan, eta beraz, herria bonbardatzen ari zirenean ezin izan zuen lantegia utzi, herritar guztien argia fabrikatik baitzeterren”.

Urte loriatsuak izan ziren Gerra Zibilaren ostean etorritakoak. Poliki-poliki indarra hartzen joan eta 1970ean Espainian ekoizten zen ehunaren %90 Bergaran egiten zen. Guztira 2.000 langile zituzten hamasei enpresa zeuden herrian. Bestalde, bakeroaren aldeko apustua ere egin zuten eta guztiz arrakastatsua izan zen, *Levis Strauss* eta *Lois* marka ezaguentzat aritu baitziren lanean.

Bergarako ehungintza egoera bikainean zegoen eta nabaria zen horren eragina. Ostegun eta larunbatero pilota partidak izaten ziren eta herritarrek goraino betetzen zuten frontoia. Inguruko tabernetan ere mugimendu handia izaten zen eta horrek herriko merkataritza eta ostalaritza indartu zituen. Bergararrek dotore fama zuten eta ehungintzaren une onen ondorioz izan zen, neurri batean.

III. ATALA: Makinak itzaltzeko ordua

Saso berriak iritsi ziren Algodonerara XX. mendearen amaieran. Algodonera de San Antonio, Hijos de Arturo Narvaiza eta Textil Lasagabaster enpresa independenteak ziren eta haria egiteki oihala lortzeko igaro behar den prozesua bakoitzak bere aldetik egiten zuen.

Lehia zuzena egiten zioten elkarri eta, hala ere, 70eko hamarkadan tindategi komun bat egitea erabaki zuten, kalitatezkoa, bakoitzak bere aldetik lor ezingo lukeen bat. Punta-puntako makinak erosi zituzten, lan-produkzioa bizkortu eta hobetuz. San Prudentzio auzoan kokatu zuten lantegia eta Tavesa izena jarri zioten. Bertan aritzen ziren hiru enpresetako langileak Algodonera, Narvaiza eta Lasagabasterretik iristen zitzaizkien oihalak tindatzen eta azken ukituak ematen.

Javier Etxebarriak paper garrantzitsua izan zuen Tavesan. Bilbotar honek Deustuko Merkataritza Unibertsitatean Zuzenbide eta Ekonomia Zientziak ikasi zituen. Titulua eskuratzean, Sevilla eta Bergararen artean aukeratu behar zuen, bietan eskaini baitzioten lana. Bere esku zegoen erabakia eta Euskal Herrian gelditzea hautatu zuen. Orduan joan zen lehenengoz Bergarara, gaur egun arte, behintzat, bere bizitokia izan denera.

Tavesa sortzean, finantza zuzendari bat behar zuten. Etxebarriaren lagun bat zen San Prudentzioko lantegia eraiki eta makinaria erostean arduratu zena eta hark pentsatu zuen bilbotarra lan hori egiteko aproposa zela.

Bere lehen lana kontabilitatea, kostu sistema, produkzio kontrola, zein nominak informatizatzea izan zen. Aro berri baten aurrean zeuden eta teknologiak aurrera egiten zuten heinean, beraiek ere eguneratuta egon behar ziren.

Poliki-poliki aurrera zihoazen neurrian, garai nahiko latzak iritsi ziren. 1984an krisi larri bat izan zen Espainian. Xabier Larrañaga ELAko sektoreko sindikalistak *Landeia* aldizkarian azaldu bezala, birmoldaketa handi bat egin behar izan zen ehungintzan eta horren ondorioz, fabrikak modernizatu ziren. Hala ere, aldaketa guztiak ez ziren



onerako izan, lanpostu ugari desagertu baitzen. “Bergaran 1.500 langile izatetik 500 izatera igaro zen sektore hau”, gogoan du oraindik ere Larrañagak.

Garai zailak bizi ostean, 1989an Grupo Tavex SA izenarekin burtsara atera ziren. Tavesa eta Exportacion izenen uztartzetik sortutakoa zen hautatuko deitura. Horrekin batera, Loisen fabrikak izan ziren Valentziako bost enpresa erosi zituzten. 1990ean aldiz, Settavex lantegia zabaldu zuten Marokon. Une honetan, Etxebarria Tavesako finantza zuzendaria izatetik, talde osoko finantza ardura hartzera igaro zen, Tavexekoa, hain zuzen ere.

Manu Diaz une horretan iritsi zen Tavexera. Ikasketak amaitu eta epaitegian hasi zen lanean, baina Tavexek barne-abokatu bat behar zuela jakitean, kotoi fabrikara joan zen. Une polit batean iritsi zela dio, asko hazi behar baitzen enpresa: “Dena zen hazi, erosi, saldu, bezeroak mundu osoan zehar, marka garrantzitsuentzat lanean, astero Valentziara, hilabeteetan behin Marokora...”

Xabier Larrañagarekin batera Iñigo Alberdi zegoen ELA sindikatuan. Alberdik dioenez, askorentzat burtsako interesek industriakoek baino garrantzia handiagoa hartu zuten garai hartan. Bergaran emaitza onak lortzen baziren, Marokon ere antzeko kalitatea lortuko zela uste zen eta askoz ere merkeagoa izango zen produktua ekoiztea. Gerora ikusi zen gauzak ez zirela horrela, Tavesan Marokon egindako akatsak konpontzen egoten zirela gogoan baitu Alberdik.

Tavex lantegiak erosi eta negozioak egiten zebilen bitartean, langileek zenbait kezka zituzten. 1996rako Xabier Larrañaga arduratuta zegoen Algodoneraren etorkizunarekin eta hala esan zuen *Landeia* aldizkarian: “Etorkizunean ehungintzan jardungo dugula bermatu nahi dugu, ez baitugu merkataritza eta banaketako enpresa soilik izatea nahi”.

Lau urteren buruan, Algodonerak ateak itxi zituen. ‘Plan Tavex 2000’ enpresa berpizteko proiektu bat zen, baina urte hartan desagertu zen San Antonioko fabrika, 152 urtez martxan egon ostean. Hala ere, Tavesak aurrera jarraitu zuen, 2010eko abendura arte. 64 langile zituen fabrika itxita, guztiz desagertu ziren Tavexek Bergaran zituen ehun-ekoizleen lantegiak.



Itxieraren arrazoiak eta aurrera egin beharra

Manu Diazek dio globalizazioa izan zela bi fabrika hauen itxieraren arrazoietakoa bat: “Lehen European europarrok bakarrik saltzen genuen, beraz, zirkuitua oso itxia zen, baina poliki-poliki India, Latinoamerika, Maroko eta Tunisiako lehiakideak sartu ziren, merkatua betez”. Herrialde hauek oso lehiakide indartsuak ziren, produktua oso merke ekoizten baitzuten, eta ondorioz, merke egiten zituzten salmentak.

“Txinatarrak kalitate baxu edo ertaineko produktuak eskaintzen hasi ziren, baina prezio aldetik ez zuten lehiakiderik”.

Manu Diaz – Tavexeko idazkari orokorra

Bestalde, 2005ean Txina Nazioarteko Merkataritzaren Elkartean sartzeak ere mugatu egin zituztela uste du Diazek, jo zuten lehen atea ehungintza izan baitzen. “Kalitate baxu edo ertaineko produktuak eskaintzen hasi ziren, baina prezio aldetik ez zuten lehiakiderik”.

2008ko krisia eta Santista enpresa brasildarrarekin egindako fusioa ere kolpe gogorak izan zirela dio Manu Diazek: “Fusio horren emaitza ez zen espero genuena izan”. Une hartatik aurrera sekulako dirutza galtzen hasi zirela dio eta horren ondorioz, fabrikak ixten hasi behar izan zirela.

Datu esanguratsua da Espainiako ehungintzak azken hamar urteetan bere ekoizpenaren heren bat galdu duela, eta azken 25 urteetan, erdia. Espainian sekulako beherakada izan duen sektorea da beraz ehungintza.

Gogorra izan zen itxierari aurre egitea, bai bertako langile zein Bergarako herritarrentzat, herriko ekonomiaren ardatz izan baitzen. Manu Diazentzat bukaera tristea izan zen. Itxieraren erabakia hartu zuen taldean zegoen bera eta une gogorak bizi izan zituela gogoratzen du: “Lana besterik ez zen, baina mingarria izan zen, bai jendearengatik eta baita historiarengatik ere”.



Manolo Gabilondo eta Ascension Fernandezek utzita zuten fabrika itxi zenerako, baina pena handia hartu zutela diote. Bizitza osoa bertan lanean aritu ostean, lantegi soil bat baino gehiago zela dio Gabilondok: “Gure fabrika deitzen genion”.

“Hilda dago ofizioa eta hemen guztiz desagertuko da”

Juanjo Gonzalez – Textiles Ibarra arduraduna

Juanjo Gonzalezek Textiles Ibarra egin izan du lan. Aurten erretiroa hartu eta itxi egingo dute enpresa. Mahoizko jantzien salerosketan jardun dute azken urteetan, hau da, jada ez zuten ehunik ekoizten. Gonzalezen arabera, Bergara puntu bat besterik ez zen ehungintzaren mapan, baina jada ez dago ezer. Espainian ere berdina da egoera, ez da oihal metro bat ere egiten. Tindatzen den arren, ez da ehuntzen. Berak argi dauka zein den gure inguruko ehungintzaren etorkizuna: “Hilda dago ofizioa eta hemen guztiz desagertuko da”.

Ezabatu egingo al dira tinta arrastoak?

Oraindik ere oso presente daude ehungintzaren aztarnak. Asko dira lanbide horretan jardun zuten herritarrak eta gertukoa da momentuz historia, baina zenbat iraungo du bergararren memorian?

Manolo Gabilondo Bergarako urdinaz oroitzen da ehungintzak utzitako arrastoei erreposoa ematean: “Bergara ezaguna zen eta baita bere kolorea ere, baina orain ez dago arrastorik; ez ‘azul’ ez bakero”.

Javier Etxebarria finantza arduradunak monumentu bat egiteko beharra ikusten zuen. Algodonera de San Antonio zegoen tokian, fabrika bota ostean, lursail handi bat gelditu zen. Etxebizitzak egiteko plan bat zegoen eta Etxebarriak orduko alkate Vitoriano Gallastegirekin hitz egin zuen auzo berrian oroigarri bat jartzeko. Harri bat bera ere ez da jarri etxe horiek egiteko, eta beraz, ez dago ehungileen monumenturik.

Museo bat egiteko asmoa ere izan zen. Juan Martin Elexpuru idazleak gogoan du, baina ez da tresnarik gorde eta zaila iruditzen zaio dagoenarekin erakusketa bat egitea. “Egunen batean norbait akordatuko da”, dio Elexpuruk.



Manu Diaz ere oroitzen da museoaren kontuaz: “Une batean alkateren batek ehungintza museo bat egin nahi izan zuen, baina horretan gelditu da. Iraganean Bergarak indarra izan du ehungintzan, baina etorkizunean ez da egongo. Iraganeko istorioak dira”.

“Etorkizunean historian ikasiko den pasarte bat besterik ez da izango”

Manu Diaz – Tavexeko idazkari orokorra

Denborarekin tintak ezabatu egiten dira. Desagertu. Bergaran jada ez da tinta urdinik erabiltzen oihalak tindatzeko; orain idazteko besterik ez da erabiltzen. Historiako liburuek eta hau bezalako erreportajeek jasoko dituzte gelditzen diren arrasto eta aztarnak. Diazen iritzi, hemendik aurrera Bergarako ehungileen kontuak historia zaleentzako izango dira. Errege Seminarioarekin alderatzen du; hori bezala, ondare moduan geldituko dela uste baitu. “Etorkizunean historian ikasiko den pasarte bat besterik ez da izango”.



Zatidurak

Herri izena duen kolorea

Txikitatik entzun izan dut Bergara *mahoneroen* herria dela. Mahoi kolorea Bergarako urdina dela ere esan izan didate. Kolorea bera *Bergara urdin* bezala ezagutzen dute askok. Gauzak horrela, argi dago nolabaiteko eragina eta garrantzia izan duela ehungintzak herrian.

Duela urte batzuk urdina zen Bergarako ibaia. Ura urdin kolorearekin lotu izan dugu, nahiz eta gardena den, baina Deba ibaiak ez zuen itsasoaren urdin kolorea. Langileen arropen urdin kolorea zen herria zeharkatzen zuen erreka.

Oihalak tindatzean gelditzen ziren arrastoak ibaira botatzen zituzten lantegiek, gainetik kentzeko modu errazena baitzen. Zorionez, denborarekin hori aldatzen joan da. Ekologiaren kontzientzia piztu zaio jendeari eta gaur egun, askorentzat pentsaezina da garai hartan egiten zen bezala, erreka urdinez tindatzea. Hala ere, 2018ko martxoan Deba ibaia aparrez bete zuen isurketa bat izan zen, baina hori beste baterako utziko dugu.

Erramu Zapatua ospatzen da herrian eta kaleak mahoi kolorez betetzen dira. Azken urteetan indar handia hartu du egun horretan “mahoneroz” jantzeak; alkandora, praka eta gonak jantzi eta egunaz gozatzerara ateratzen dira herritar ugari.

Eta zein da kirol taldeen goitizena? Mahoneroak. Erabiltzen dituzten jantziak ere urdin kolore horretakoak dira. Beraz, ehungintzaren arrastoak kirolera ere iritsi dira.

Erraldoiek indar handia dute Bergaran. Hamar figura daude eta horietatik bik ehungintzarekin dute lotura. *Mahoi* eta *Kotoi* dute izena, herrian izan den industria garrantzitsuenetakoari erreferentzia eginez.

Ehun fabriketako tinta urdinak herrian barrena hedatu dira eta oraindik ere bertan daude zenbait zantzu eta arrasto. Ikusiko da zenbat denbora behar duen tinta honek desagertzeko; ikusiko da ezabaezina den tinta den ala ez.



“Lehen egiten zen lanarekin alderatuta antzekotasunen bat egotea kasualitate hutsa da”

Gorka Gonzalez – Textiles Ibarra arduraduna

Bergaran ehunaren ekoizpenean jarduten duen lantegirik ez dagoen arren, badira zenbait enpresa txiki ofizioarekin nolabait lotuta daudenak. Gorka Gonzalez Textiles Ibarra arduraduna da. Telak erosi, jantziak egitera bidali eta gero produktu horiek saltzeaz arduratzen dira bertan. Hala ere, ez dira denbora luzez arituko lan horretan, aurten itxiko baitute enpresa.

Tavexen aritu zinen lanean. Noiz eta nola ekin zenion lan horri?

Tavex sortu zenean bertan hasi nintzen lanean. Soldadutza amaitu eta osabak deitu zidan, nik hartu nuen posturako norbait behar zutela esanez. Merkataritza ikasketak nituen eta onartu egin nuen eskaintza. Hasieran erakusgaiekin egiten nuen lan eta gero komertzial moduan aritu nintzen.

“Bakeroaren alde egitea erabaki ona izan zen”

Gorka Gonzalez – Textiles Ibarra arduraduna

Garai hartan lanerako arropaz gain beste zenbait produktu ere egiten zenituzten.

Ohituta zeuden lanerako arropa egiten, hori zen Algodoneraren berezitasuna eta horretan trebeak ziren. Bakeroaren alde egitea erabaki ona izan zen. Nahiko kontrolatuta zeukaten ehun hori eta emaitza onak eman zituen. Ni zoratu egin nintzen modarekin. “Partxis” mahai-jolasean izaten diren koloreko praka, jaka eta gonak egiten hasi ziren. Ez zituzten mota askotako jantziak egiten, hiru bat izango ziren, baina ni erotu egiten nintzen. Sarritan ez ziren koloreak ateratzen eta bezeroei astebete gehiago itxaron beharko zutela esan behar izaten nien. Handik gutxira, alpargatak egiten hasi ziren, baina ordurako ni ez nengoen enpresan.

Izan ere, zure osaba eta anaiarekin hasi zinen lanean.

Osabak ehun lantegi bat zuen Aramaion, Textiles Ibarra, gaur egun gure enpresa dena. Anaia ere bertan zebilen lanean eta Tavex utzi nuenean batu nintzairen. Hasiera batean



ehuna ekoitzi eta saldu egiten zuten tela hori. Gerora bitartekari lanak egiteaz arduratu gara; oihalak erosi, jantziak egitera bidali eta saltzera.

Nola egiten duzue lan?

Hasiera batean, ehuna Bartzelonatik ekarri eta Tavesan tindatzen genuen, beraz, itxierak eragina izan zuen gure enpresan. Izan ere, bertako tinta kolorea ez genuen beste inon lortzen. Ehuna kanpoan ere ongi egiten dizute, baina tintarekin arazoak izaten dira. Ez bada kalitate onekoa, eskua pasatu eta zikindu egiten zara. Behin Tavesa itxita, Textil Santanderinara jo genuen, Cabezon de la Saleko enpresa batera. Kolore urdina antzekoa da bertan eta ordutik beraiekin egiten dugu lan. Ehuna kanpotik ekarri eta tindatu egiten dute. Guk hori erosi eta jantziak egitera Palentzia eta Kordobara bidaltzen dugu. Behin hori eginda, dendei eta enpresa batzuei saltzen dizkiegu produktuak.

“Azken urteetan jaiei esker egin dugu aurrera”

Gorka Gonzalez – Textiles Ibarrako arduraduna

Nortzuk dira zuen bezeroak?

Bezeroen %80 dendak dira. Gainontzean enpresaren bati ere saltzen dizkiogu jantziak, baina batez ere dendak. Hala ere, desagertzen ari dira. Geroz eta mertzeria gutxiago daude, eskaera ere txikiagoa baita. Lehen baserritarrek eta arrantzaleek praka onak behar izaten zituzten, baina bai dendak eta baita bezeroak ere desagertzen ari dira. Azken urteetan jaiei esker egin dugu aurrera, martxotik irailera kostako herri askotan arrantzalez janzten baitira. Lekeitioko Antzar Egunerako saltzen dira alkandora gehien, erraz apurtzen baitira.

Nola ikusten duzu ehungintzaren egoera?

Oso ilun. Hemen ez da ezer geldituko. Espainian Textil Santanderina mantentzen da eta gutxi gehiago. Bartzelonan ere dena desagertu da. Lehengo lanarekin alderatuta antzekotasunen bat egotea kasualitate hutsa da. Askok aldatu da ofizioa.



Martina Maiz, bere garaiari aurre hartu zion emakumea

“Martina Maizen bizitzarekin eleberri bat egin daiteke”. Halaxe dio Tavexeko langile izan zen Manu Diazek. Istorio eta pasarte ugari bizi izan zituen 1819an Beasainen jaiotako emakume honek. Bere garairako oso emakume aurreratua zen eta han eta hemen utzi ditu bere aztarnak.

1839ko apirilaren 17an ezkondu zen Jose Julian Blancekin. Tradizioak hala aginduta, Maizen ahizpa hiltzean, alargunarekin ezkondu zen eta une horretan utzi zuen Beasain, bere senarra zegoen tokira, Bergarara, joateko.

Blancek ez zuen seme-alabarik izan, ez Martina Maizekin, ezta honen ahizparekin ere. Hori dela eta, hiltzean, testamentuko ondare guztiak Martina Maizentzat izan ziren. Hala, kotoi fabrika zuzentzeko ardura hartu zuen.

XIX. mende amaieran oso gutxi ziren enpresa baten jabetza eta zuzendaritza zuten emakumeak. Ordura arte Algodoneran ere gizonak zeuden goi-karguetan. Egin zuen lana, gainera, ongi eta ganoraz egindakoa dela esaten da. Manu Diazek “Gipuzkoako enpresari onena” izan zela dio.

Ez dago oso argi zer gertatu zen, baina 1881eko otsailaren 9an Elorrioko Jose Niceto Urkizuri saldu zion enpresa, nahiz eta lantegiarekin harremana izaten jarraitu zuen. Horren erakusgarri da *Viuda de José Julián Blanc y Urquizu* izena hartu zuela fabrikak.

“Martina Maizen bizitzarekin eleberri bat egin daiteke”

Manu Diaz – Tavexeko idazkari orokorra

Behin enpresaren kontuak alde batera utzi zituela, Donostiara joan zen bizitzera eta gizarte-ekintzei bere babesa ematen aritu zen.

1887an Urkizu gaixotu zen. Ezin zuen enpresaren zuzendaritzarekin jarraitu eta Martina Maizengana jo zuen ardura hori har zezan eskatzeko. Maizek egoera ulertu eta berriz



egin zen ehungintza-lantegiaren buru. Izena aldatu zion berriz: *Viuda de J. J. Blanc* izango zen ordutik aurrera.

Martina Maiz izan zen Bergarako herriari energia elektrikoa eskaintzea erabaki zuena. 1891n hitzarmen bat sinatu zuen Udalarekin. Bertan, akordio batera iritsi ziren: ibaiko urarekin energia hori lortu eta egunez fabrikako makinetarako erabiliko zen eta gauez herritarren etxeetara iritsiko zen.

Aurrerapen handiak egin zituen enpresan bigarren etapa honetan. Fabrikari egindako produktuekin erakustaldiak egiten eta lehiaketetara aurkezten hasi zen, lantegiaren izena ezagutzera eman eta leku askotara zabalduz. Zazpi eraikin zituen *Viuda de J. J. Blanc*ek eta gertutik zaintzen zuen bere langileek egiten zuten lana.

Produktibitatea hobetzeko asmoz, igandetan ere lan egiteko apustua egin zuen. Elizak indar handia zuen garai hartan eta pentsaezina zen jaieguneko meza galtzea. Hori nolabait konpontzeko, Donostiako apezpikuari igandetan lan egiteko baimena eskatu zion eta honek aintzat hartu zuen haren eskakizuna. Kartel bat jarri zuten Martina Maizen lantegian: “Lantegi honetan Gotzaindegiaren baimenarekin egiten da lan igandeetan”.

1891ko urriaren 7an hil zen Martina Maiz, 72 urte zituela, Donostian zuen ‘La Cumbre’ etxean. Oinordekorik ez zuenez, gizarte-ekintzei utzi zizkien bere ondasunak. Bergarako San Pedro parrokiari Stoltz-Freres organoa eman zion eta bertan jarraitzen du oraindik. Bergaran eta Beasainen bere izena duten kale bana du, utzi zuen aztarnaren seinale.

1. DESGRANADO o AZGARBAKETA : Después de la recolección, la primera operación a la que se somete a la planta de lino es la de desgranado (azgarbaketa), que consiste en separar la semilla haciendo pasar las plantas por un peine metálico, que puede estar sujeto a un banco.



2. ENPOZADO o BERATZEA : Posteriormente se le somete al enpozado (beratzea), que consiste en tener las plantas a remojo durante un tiempo con el fin de que disuelva la sustancia gomosa (beratza) que liga las fibras a la corteza.

3. SECADO o LEGARKETA : Para saber si el enpozado ha producido efecto se hacen unas plantas y se frota entre sí. Si la corteza se separa con facilidad se sacan las plantas del agua y se procede al secado.

4. MAZADO o LINO-JOTEA : Una vez secas, las plantas se machacan utilizando un mazo (bostarra) con el que se golpea contra un pedo de piedra (lino-harra). De esta forma se separa la parte leñosa dejando libre la fibra textil.




5. AGRAMADO o TRANGAKETA : El agramado (trangaketa) tiene función similar al golpeado, pero se realiza con una agramadera (tranga baldibidique) machaca la planta haciendo desmenuzarse la corteza con mayor perfección.




6. RAIDO o SUARKETA : El raído (suarketa) consiste en hacer pasar la fibra a través de la ganta. Al ser presionada por ella, desprende la parte leñosa que todavía lleva mezclada.




7. ESPADEO o EZPATATU : A continuación, para obtener una mayor pureza de la fibra se procede al espadado (ezpatatu), que consiste en golpear la fibra con una espadilla. El espadante sujeta con los pies el gramayín (ezpatin-oiña) y coloca la fibra en el bisel de la pieza vertical, golpeándola con la espadilla.



8. CARDADO o TXARRANKETA : Finalmente el cardado (txarranketa) deja la fibra en disposición de ser hilado. El cardado se realiza con una rastra (txarranketa), que consiste en un haz de púas de hierro sujetas a una tabla. Haciendo pasar la fibra por el haz de púas se aportan las últimas restas de materia leñosa y se ordenan las fibras. En este último trabajo se selecciona la fibra larga, de mejor calidad, de la corta y los desechos que se utilizan para lenzo de peor calidad.



9. HILADO o HARIGINTZA, IRUTEA, GORUETA : Para el hilado del lino se utilizan dos elementos: la meca (gorua) y el huso (gorutza). La meca es uno visto en uno de cuyos extremos se muele el cabo de lino. Por el que hilo no se desprende se coloca un rasclero (goru-baxela). La meca se sujeta con el brazo izquierdo y con la mano también izquierda se va metiendo el lino por el agujero superior del huso. Este se sostiene con la



mano derecha, que le hace girar consiguiendo así torcer las fibras. Cuando se ha torcido una cantidad suficiente, se saca el hilo de la rosca y se enrolla al que del huso. El torno de la figura cumple las funciones del huso y la rueda, siendo invención de la Edad Media. El torno de pedal se denomina gornitico y realiza las mismas funciones.



10. MADEJADO o MATAZAK EGITEA : Conseguir el hilo se hacen madejas (matatak egitea) con el madejador (matasulkiak).

11. COCIDO DEL HILLO o HARI-EGOSTEA : Las madejas se introducen en una cuba construida con cortiza de árbol. Esta cuba está situada sobre una plataforma con desajuste por el que se recoge el agua que, presionada calentada, se va derramando en la cuba sobre las madejas. Esta operación se llamaba cocido del hilo (hari-egosteak). En la cuba, sobre las madejas, se colocaba ceniza que actuaba de delantarra.

12. SECADO o ARILKEIA : Después del cocido y posterior lavado con agua limpia el hilo se seca para conseguir mayor blancura.

13. DEVANADO o ARILKATZE : Finalmente las madejas se sitúan en el devanador (arilkatza) utilizado para hacer los ovillos de lino, que quedan dispuestos para su utilización en el telar.



1. Hilando a mano en el portal de casa. (Autor: Eufalia Abaitua, Fotografía: Euskal Museo-Bilbao-Museo Vasco).

2. El hilado del lino siempre ha estado en manos femeninas. (Autor: Eufalia Abaitua, Fotografía: Euskal Museo-Bilbao-Museo Vasco).





Grupo de vecinas frente al caserío Biteriño del barrio Arttaun de Dima.
(Autor: Eulalia Abaitua. Fotografía: Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco).



Hilanderas. Principios del siglo XX. (Fotografía: Museo San Telmo)



Costureras en la puerta de un caserío, a principios del siglo XX. (Fotografía: Museo San Telmo)



1. Mujeres trabajando el lino en un caserío de Forua, 1918. (Autor: Gabino Sejo. Fotografía: Museo San Telmo).
2. Mujer hilando a mano con el huso y la rueca. (Autor: Eulalia Abaritua. Fotografía: Museo Vasco de Bilbao).
3. Sudario de Nabarniz (lienzo de entre 1465-1565). El sudario ha sido una de las indumentarias utilizadas para el amortajamiento en la comunidad vasca, al menos desde el siglo XV, como lo atestigua el sudario de Nabarniz, conservado en el Museo Vasco de Bilbao. Ejemplar excepcional, hoy por hoy único y exclusivo, destaca tanto por la calidad del hilo en que está confeccionada la sábana como por la riqueza de colores empleados en sus bordados y la iconografía empleada. Los sudarios formaban parte del ajuar textil que llevaban las mujeres como dote y son, al igual que el resto de los lienzos relacionados con los ritos funerarios, los más ricos y labrados.



Escena donde aparece la pareja de Arsuaga delante de la casa del tío de Gandoa, en el barrio de Alkibar de Zeamuri, 1931. (Autor: Felipe Mamerola. Fotografía: Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco).

HISTORIA DEL ALGODÓN EN BERGARA





Vestuario “sólo” ¿laboral?



¿Azul Vergara o Azul Mahón?

ORIGEN

"En el año 1200 las tierras de Guipúzcoa se incorporan a la corona castellana y comienza un proceso de fundación de villas a lo largo de las rutas que unen las costas del Cantábrico con la meseta castellana, promoviendo de esta forma el comercio. El valle del río Deva es el paso natural entre la costa y la llanada alavesa y la meseta castellana. Por esta vía se exportará la lana de los grandes rebaños castellanos a Inglaterra y entrará el hierro necesario para las herrerías. En este contexto histórico **Alfonso X el Sabio** funda, en el lugar conocido como San Pedro de Ariznoa, la villa de **Villanueva de Vergara** el 30 de julio de 1268 y le otorga el fuero de Vitoria."

Parece que, de tanto ver pasar la lana de las ovejas hacia Inglaterra, algún avisgado bergarés pensó en la oportunidad de fabricar allí mismo las telas. Así, la tradición textil de Bergara se remonta al menos al siglo XV, pues en 1497 los Reyes Católicos confirmaron las ordenanzas de "*los hazedores de los paños de Vergara*", y en el siglo XVII el "*lienzo que llaman de Vergara*" gozaba de reconocido prestigio.

LA ALGODONERA

El salto cualitativo comenzó en 1.846, cuando **José Julián Blanc**, comerciante aragonés afincado en Bergara y dos vecinos de Bayona, **Frois y Silva**, fundaron la "Fabrica de Hilados y Tejidos de Vergara", más tarde "rebautizada" como **Algodonera de San Antonio** , por el nombre del barrio donde se encontraba ubicada, y posteriormente (1989) integrada en el **Grupo Tavex**.

Entre las razones para ubicar la nueva planta en Bergara que a mediados del siglo XIX contaba con unos 4.500 habitantes, frente a 15.000 Bilbao, 13.000 San Sebastián y 12.000 Vitoria, además de la tradición textil y la vinculación personal de Blanc con la Villa, cabe señalar al menos otras dos circunstancias. Por un lado las favorables comunicaciones tanto con la frontera francesa como con el centro español por el "camino de coches" que se terminó de construir en 1765, pudiéndose decir lo mismo de la conexión con Bilbao que quedó favorablemente resuelta en 1839.

La empresa, dedicada principalmente a la elaboración de hilo, tejido, y estampaciones de algodón, se desarrolló rápidamente, de forma que en 1860 daba empleo a 500 trabajadores: 109 en hilatura, 189 en tejeduría, y 203 en blanqueo, tintura y estampación. La energía utilizada era hidráulica, del río Deba, y de vapor y tenía "instaladas 54 máquinas para preparación y carda de algodón, 28 máquinas de hilar y 164 telares". Existía también un "departamento de blanqueo, teñido y estampación."



Fue importante la disponibilidad de terrenos junto al río Deba, parte de cuyas aguas se preveía utilizar para producir energía.

IMPORTANCIA DEL SECTOR TEXTIL EN EL PAIS VASCO

No deja de llamar la atención la elección, pues como es conocido, en la época Cataluña había desarrollado una notable industria textil. Sin embargo, a fines del siglo XIX y principios del XX, cuando el desarrollo industrial del País Vasco empezaba a tener una notable entidad, en el sector textil, junto a la empresa bergaresa se pusieron en marcha entre otras, en Gipuzkoa, Textil Lasagabaster (1892), Esteban Alberdi y Cia. el mismo año, Epelde, Larrañaga y Cia. (1898), Fabril Lanera (1899) y Manufacturas del Yute (1900), Alcorta y Azcarate posteriormente Hijos de Arturo Narvaiza (1920) y en Bizkaia La Conchita (1903).

La puesta en marcha de la

[Fábrica de Hilados y Tejidos en el Barrio de San Antonio de Bergara se llevó a cabo en circunstancias propicias, pues en 1841 se había producido la abolición de las aduanas internas y su traslado a las fronteras exteriores. Además el sector se vio muy favorecido por todos los avances tecnológicos que impuso la Revolución Industrial y que la sociedad bergaresa pudo aplicar desde su inicio.](#)

"La Algodonera" a lo largo de su dilatada historia ha registrado numerosos cambios de sus propietarios y formas societarias. Cabe destacar que en 1889 adoptó el nombre de "Blanc, Larraondé, Aguirre y Cia." y a la muerte de José Julián Blanc, auténtico promotor y único propietario desde 1871, ocurrida a mediados de 1877, se hizo cargo de "La Algodonera" su viuda Martina Maiz y Bagazgoitia, que la vendió en 1881 a Jose Niceto de Urquizu, adoptando el nombre de "Vda. de José Julián Blanc y Urquizu", para seis años más tarde, hacerse cargo de nuevo de la sociedad, que pasó a llamarse "Vda. de J. J. Blanc". A su fallecimiento en Octubre de 1891, fue adquirida por cinco inversores de los cuales cuatro residían en Bergara, Ignacio Echaide (150.000 pesetas), Manuel Saiz (50.000) y los hermanos Francisco y Jorge Arteché con 25.000 pesetas cada uno y Benito Ameztoy con 150.000. La sociedad se constituyó el 10 de Mayo de 1892, con el nombre de "Echaide y Cia. Sucesores de Vda. de Blanc". Tras diversas incidencias, el 21 de julio de 1904 pasó a denominarse "Algodonera San Antonio S.A. ".



Tejidos Teñidos estampados y Blanqueos Alcorta y Cía

Nacida en 1920 posteriormente sería Hijos de Arturo Narvaiza, una de las empresas más fuertes e innovadoras del sector, siendo la verdadera creadora de la tela vaquera

LAS TELAS

En estas fechas la fábrica ya producía **mahones** (telas fuertes y frescas de algodón que primeramente se fabricaron en la ciudad china de **Nanquín**, y que debían su nombre a que los ingleses las importaban a Europa por el puerto, entonces inglés, de **Mahón**), que debían ser muy apreciados, pues se reconocía que "la fábrica carecía de competencia en sus algodones azules", lo que originó que comenzaran a instalarse en Bergara diversas empresas dedicadas al tinte de telas en azul.

Surgió de esta forma un núcleo textil que se fue especializando en este artículo e identificándose con él, de forma con el paso del tiempo se conoció como "**azul de Vergara**". Se trataba de un tejido de algodón teñido de un característico color azul oscuro y cuyo principal colorante era un añil natural procedente de la India, fabricado con las hojas y tallos de una planta llamada índigo. Se destinaba principalmente a ropa de trabajo y, en 1888, ya se fabricaban 17.000 piezas al año.

Con el comienzo del siglo XX su consumo siguió extendiéndose y hacia los años veinte seguían apareciendo en Bergara nuevas empresas que comenzaban su fabricación, compitiendo entre sí, así como con otras radicadas en Cataluña, pero que por diversas causas no consiguieron obtener la tonalidad característica del "azul de Vergara".

Como consecuencia de la industrialización española de la posguerra la demanda creció, y en Bergara llegó a producirse el 90% del tejido para ropa de trabajo que se fabricaba en España, contando hacia 1970 con 16 empresas textiles, que ocupaban a unos 2.000 trabajadores, en gran parte mujeres.



Mi ropa de trabajo está confeccionada con tejido de...

ALGODONERA DE SAN ANTONIO

ANTICSUBIRATS

SANFOR.

Por más que dure tanto, soy siempre cómodo y logro la elegancia natural en el trabajo que todos desearían.

Los tejidos de ALGODONERA DE SAN ANTONIO, acreditados por su mayor duración y resistencia a rasos y desgates. Sólo color Azul Vergara. Sin de pámelo algodón 100 %. Su precio conveniente.

Reflexion sobre cualidades al añadirles la calidad de la marca SANFOR, la marca que no encoga.

ALGODONERA DE SAN ANTONIO



San Antonio Vergara Algodonera de San Antonio es una marca que garantiza la calidad de su ropa.

ALGODONERA DE SAN ANTONIO, S. A. Licenciada SANFOR. Instalaciones propias VERGARA@SUBIRATAccion.net

TELA VAQUERA

Es en esa época cuando, como consecuencia de las nuevas tendencias de moda, especialmente en el segmento juvenil, se produce una transición natural hacia la fabricación de tela vaquera, conocida como denim. Algodón y tinte azul; si de algo sabían en Bergara era de cómo tratar esos materiales. La Algodonera y el resto de empresas del sector, nunca fabricaron producto terminado, sino que eran proveedores de las grandes marcas; gran parte de su producción se exportaba a los mercados europeos y americanos.

Algunas marcas de vaqueros de los años 70-80: Levi's, Lee y Wrangler eran los líderes a nivel mundial. En España, **Sáez Merino**, desde Valencia, fabricaba los **Lois, Cimarrón, Carоче, Caster, Old Chap**,.. También **Rok y Liberto (Buenos)** fueron marcas españolas de éxito.

A finales de los 80, La Algodonera de San Antonio acomete una gran expansión nacional e internacional; compra fábricas en Valencia y Marruecos, se constituye como "Grupo Tavex" y sale a Bolsa. Pero las leyes de la globalización se imponen y pronto la fabricación va trasladándose, primero a Marruecos y después a Brasil (en 2006 Tavex se fusiona con el grupo brasileño **Santista**).

Poco a poco las fábricas españolas van cerrando; la de Bergara lo hizo en febrero de 2011. 165 años de historia ligada al algodón y al índigo. Ya los azules de nuestros vaqueros no serán "de Vergara", sino "de Xintang" (Guangzhou), "de Ahmedabad" (La India) o "de Settat" (Marruecos). "O tempora, o mores" que diría el clásico...

